

SOL

BAND GAZA

— DOSSIERA 2025 —



San Bandako kideak Gazan jaio, hazi eta bizi izan ziren 2024ko apirilera arte. Banda 2012an sortu zuten Palestinaren bihotzetik itxaropenaren eta sormenaren sinbolo zirraragarri gisa.

Bertan, banda Palestinako hainbat ekitaldi kultural eta komunitariotan zutabe bat izan da, eta bere musika erabili du palestinarren herentzia ospatzeko eta zoritxarraren erdian itxaropena pizteko. Gazako eta Zisjordaniako jaialdi eta kontzertuetan izateak sustraiekin eta komunitatearekin duen lotura indartu du.

Sol Bandek ekarpen esanguratsuak egin ditu musikaren panoraman, Palestinako musika tradizionalaren bilduma landuz, Palestinako eta Arabiako musika folklorikoko 30 abesti ekoitzi zituen lankidetzaren proiektu batekin, telebista kate batekin elkarlanean, gal ez zitezen. Era berean, hamar konposizio propio bildu zituen. YouTuberen bitartez beraien musika milioika ikuslerengana iritsi zen, banda ezaguna egiten hainbat herrialdetan.

Palestinako folk eta pop garaikidearen fusio paregabearekin, Sol Bandek Gazako blokeoa gainditzea lortu zuen, mugak gaindituz eta musikaren hizkuntza unibertsalaren bidez pertsonak elkartuz.

Gazatik irtetea lortu eta 2023ko uztailean Jordaniako Jerash Jaialdian parte hartu zuten. Bestetik, Ammanen 2022ko ekainean kontzertu bira bat eskaini zuten eta Frantziako Arabesque eta Belgikako Copacobana jaialdietan zuzenekoak eskaini zituzten 2021ean.

Ilusioz betetako garaia zen, eta panorama oparoa, eta beraien kantuek sentsazio horiek islatzen zituzten.



“Laster gaindituko dituzu zailtasunak
eta irribarre egingo duzu, oso ziur nago
Izan positiboa, saiatu eta lasaitu
Egun handiak laster itzuliko dira. Ziur egon”



Egin klik argazkian bideoa ikusteko.

Baina 2023ko urria iritsi eta gatazka areagotu egin zen. Sarraskiak eta Gazatarren aurkako genozidioa iritsi ziren. Sol Bandako kideek Gaza barrutik kontatu zuten bizitzen ari zirena.

En un momento en que estamos presenciando una revolución en estándares morales, y un desprecio por todos los principios y conceptos fundamentales que definen el valor humano, el mundo está en silencio. Ahora hablaremos, y cantaremos, para contarte todo... Escúchanos y sé el eco de nuestras voces y las voces de todos ellos 🤝❤️

Compartimos nuestras historias.. para que puedas ser el eco de todas nuestras voces.
Traducido del Árabe



Haurrengana poza eraman nahi izan zuten heriotza, hondamen, gose, bonbardaketa indiskriminatu eta bortxazko desplazamenduen artean.



Gazatik kantuak grabatu zituzten etengabeko bonbardaketen artean. Israelgo okupazio armadak hildako haurrak omenduz egin zuten honakoa:



Apirilean Gazatik irtetzea lortu zuten, lehenik Kairora eta ondoren Qatarrrera, erresilientzia mezu bat partekatzeko eta musikaren bidez gazatarren palestinarren egoeraren ahots bihurtzeko.



Uztailean, Qatarren zeudela, Gazan zegoen Saadi Mdoukh, bandaren bideoklipen eta arte zuzendaria bonbardaketa baten hil zutelakoaren berri izan zuten.



Bideoklip hau Saadik Gazan filmatu zuen azkena da. Qatarren argitaratu berri dute, eta Sol Bandek zabaldu duen azkena da:



"KULTURATIK Kultur sortzaileak Palestinarekin" ekimenetik SOL BAND GAZA taldeari lagundu diogu gure lurraldera etorri eta bere egoeraren aurrean nazioarteko babesa eskatu ahal izateko. Aurtengo maiatzean iritsi ziren eta hemen egonkoritu dira, etorkizun batean hemendik bidaiatu ahal izateko nazioarteko kontzertuak eskaintzeko.

KONTZERTUAK

“KULTURATIK Kultur sortzaileak Palestinarekin” SOL BAND GAZA taldearen kontzertuak antolatzen ari gara gure lurraldeko enbaxadore kultural gisa, musikaren eta kantuaren bidez gazatarren eta Palestinaren ahotsa helarazi ahal izan dezaten; izan ere, gure ustez, musikak erresistentziarako, erresilientziarako eta elkartasunerako tresna gisa duen indar iraunkorraren lekuko indartsua da.



ALA MAD AL SHOOF



RAWEQ WA HADDY



FESTIVAL ARABESQUES



FESTIVAL ARABESQUES

KOMUNIKABIDEETARA ESTEKAK

**The
Guardian**

IKUS ALBISTEA

TNM

IKUS ALBISTEA

Ap Associated Press

IKUS ALBISTEA

"HELP THE PALESTIANS"
SOL BAND

IKUS ALBISTEA

naiz:

IKUS ALBISTEA



RRSS Sol Band Gaza:

[@Instagram](#) [f Facebook](#) [v Youtube](#)

Kontratazioa:

produkzioa@txalapart.com

+34 607 54 01 56